# PERTSONEN KUDEAKETA, GIZATIARRAGOA, BIDEZKOAGOA

# *La gestión de las personas, más humana y más justa*

**BERDINTASUNA KUDEAKETA AURRERATUAN: TRESNAK ETA ESPERIENTZIAK (V)**

***IGUALDAD EN GESTIÓN AVANZADA: HERRAMIENTAS Y EXPERIENCIAS (V)***

***Kudeaketa Aurreratuaren Europar Astea / Semana Europea de la Gestión Avanzada***

EMAKUNDE

KUDEAKETA AURRERATUA
EUSKALIT
GESTIÓN AVANZADA

Aurkene Redondo Ikazuriaga



# SAIO HONETAKO HELBURUA






- Emakumeen berdintasunerako eskubidea gure erakundeetan GIZA ESKUBIDE bezala ulertua eta onartua izateko pista batzuk, are gehiago COVID garaietan.

- Erakunde “aurreratuak” emakume erresilienteak lortzeko estrategia batzuk perfilatu. Hau da BIDEZKOA.

# COVID KRISIAREN ERAGINA



## Emozioen garrantzia krisi honetan: BELDURRA



Inoiz baino KRISI GIZATIARRAGOA (izan) da.



Estresa sortzen duten faktore ugari, eremu guztietan: lanean, etxean, kalean, kirolean, aisian, ... Inoiz baino presio emozional eta sikologiko handiagoa.

Emakume langileen OSASUNA dago jokoan: Neke fisiko eta sikologikoa, estres emozionala

KRISIEK emakume aurpegia izaten dute. Oraingo honetan eta inoiz baino gehiago, ZAINTZA jarri da erdigunean; beraz, emakumeak jarri gara erdigunean.

*Emakume aurpegia dute sektore arriskutsuenak osasunerako (medikuntza, erizaintza, garbitasuna, supermerkatuetako langile, nagusien zaintza, komertzio txikiak, hezkuntza … ) edo enpleguaren galerak (ostalaritzan, merkatari txikiak) …*

*Familikoen zaintza areagotu beharra, etxeko lanen karga handiagoa, lan egiteko modu eta eskaera berriak,  etxekoekin espazioa eta beharrak konziliatu beharra, emakume izateagatiko erasoen aurrean babes gutxiago izatea, …*

# Nola zaindu zaintzaileak erakundeetan?




Gure
erakundeak
zaindu
egiten gaitu

# Zergatik ez integatu ERRESILIENTZIA gure erakundeko zaintza prozesuan?



## EMAKUME ERRESILIENTEAK LORTU

# EMAKUME ERRESILIENTEAK LORTU



1. Inguru afektiboa eskaini

2. Entzun: hitza eman

3. Sareak eraiki

# ERRESILIENTZIA

# Boris Cyrulnik

Seguru sentiarazi. Inguru afektiboa. Ez utzi bakarrik
Autoestimua
Zentzua bilatu: artea erabili, lanbidea erabili
Harremana: sareak sortu
Hitza ematen duen kultura sustatu
Enpatia-altruismoak gure sufrimendua bideratzen laguntzen digute





# 1. Inguru afektiboa eskaini

- PERTSONEN KUDEAKETA ARLOAK gidatu beharko du prozesua.
- Estrategia berrien kudeaketa eta neurri berrien integrazioa beharrezkoa da.
- Emakumeen zaintzarako mekanismoak PERTSONAK arloko politiketan integratu beharko dira
- **KUDEAKETA EMOZIONALA**

# BERDINTASUN PLANA

- Prozesu guztia egituratzen duen tresna izan daiteke. ARDATZA.

- **Pertsonen kudeaketa arloak** zeharkako tresna bezala erabil dezake Berdintasun Plana emakumeen ERRESILIENTZIA prozesua erakundearen beste estrategiekin uztartzeko, besteak beste.

- **Diagnostiko fasean** erabiltzen diren teknikak (inkestak, elkarrizketak, talde fokalak, …) birpentsatu eta beste sakontasun batekin diseinatu beharko dira emakumeen nahi eta beharrak ondo jasotzeko garai hauetan.





# 2. ENTZUN: HITZA EMAN

Erakundeetako pertsonen kudeaketa arloak, inoiz baino gehiago **ENTZUTEN** jakin beharko du. Egoeren **aniztasuna** jasotzeko, erakundeko emakume **bakoitzarengana** heldu beharko da.

Entzun eta HITZA emateko espazioak sortu beharko ditu.

# Egun dauden ENTZUTEKO MEKANISMOEI genero ikuspegia sartu: HITZA EMAN

- *Langileen gogobetetzea jasotzeko teknika kuantitabo eta kualitatiboak berdiseinatu (galderak, gaiak,…: ongizatea, osasuna, laguntza beharra, autoestimua, erasoak, …) emakumeen egoera eta beharrak detektatzeko.*

- *Barne Coaching prozesuak eta Lidergo emozionala garatu beharko da. Bidelagun izan beharko dira eta inguru afektiboa eraiki.*

- *Jarraipen sistemak sortu pertsonen egoera eta eboluzioa ezagutzeko. Onespen edo errekonozimendu sistemarekin lotu. Tresna hauek erabili beharko dura enpatia praktikatzeko, autoestimua igoten praktikatzeko.*

- *Espazio informalak/talde dinamikak eta talde prozesuak erabili emakume bakoitzarengana heltzeko, zubilanak egiteko, sareak eraikitzeko, harremanak sendoteko*





# Enfoke berriak esploratu.

1. **Gaitasunen Araberako kudeaketa sistemak birplanteatu** (gaitasunak errebisatu, prozesua bera aztertu). Emakume erresilienteak lortzeko zeintzuk gaitasun landu beharko dira? ENTZUN, ESAN, ZAINDU, LAGUNDU, ENPATIA, ONETSI, ...

2. **Ezagutza jaso eta partekatu (langile guztiak-liderrak):** berdintasunean, emozioen kudeaketan, gidaritza metodologietan, ongizatean, osasunean, autoestimuan, elkar zainketan, segurtasuna, konziliazioa-integrazioa, … (Emakundeko programa desberdinetan) alor teknologiko eta abarretaz gain. Formazio/ezagutza partekatzeko planean uztartu.

3. **Partaidetza:** hobekuntza taldeak sortu proiektu berrien inguruan. Emakumeei eman hitza, protagonismoa eta beste guztiak gonbidatu proiektu partekatuak garatzeko. Ikusi eta ikasi beste batzuk nola egiten duten. Berrikuntza planean sartu.

4. **Espazioak eta zerbitzuak sortu:** espazio berriak sortu. Partaidetza egituran sartu.

   Aholkularitza espazioak
   Babeserako espazioak
   Eguneroko gestioak egiteko laguntza
   Osasunerako espazioak
   Aisialdirako espazioak

# 3. SAREAK ERAIKI



**Lankidetza, elkarkidetza PLATAFORMAK sortu.**

ADIBIDEZ:

- Jantokian catering zerbitzua eman: jakiak erosteko eta eramateko aukera
- Haurtzaindegi zerbitzua eta orokorrean besteak zaintzeko zerbitzua (existitzen diren erakundeekin elkarlanean, konbenio interesgarriak lortuz)
- Enkarguak errazteko sarea sortu
- Aholkularitza finantzarioa-fiskala, errataztasunak, onurak, … -formazioa eta oinarrizko laguntza eman.
- Bidelagun izatea (taldeak sortu, kontaktuak, … kudeatu) aisialdirako, kirolerako, …
- Lanean laguntza taldeak sortu emakumeen aurkako indarkeriaren aurrean, …

Bolodresen bitartez sortutako sareak edo/eta erakundeak berak bideratutakoak, …
<u>Komunikazio planean uztartu.</u>



Beharbada zorakeriak dira ….
Beharbada ideia on batzuen abiapuntua.

SORMENAREN ezaugarri nagusia, ideiak, batzuetan modu arrotz eta nabarmenean (txokantean) erlazionatzeko eta konektatzeko gaitasunean datza, berdin da zein eremutan George J. Seidel-en esanetan.

# Eskerrik asko!!

Nile Azueta-ri eskerrik beroenak bere marrazkiengatik!!!